

BEHIN- BEHINEKO DESTINOAK, PRAKTIKETA KOAK ETA ZERBITZU- EGINKIZUNETAKOAK, ZUZENDARITZA- KARGUEN IZENDAPENA ETA IRAKASLEEN LANALDIAREN MURRIZKETAK 2013-2014

388/2013 EBAZPENA, otsailaren 20koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasle funtzionarioei **behin-behineko destinoak, praktiketakoak eta zerbitzu-eginkizunetakoak** esleitzeko eta zuzendaritza-karguak izendatzeko jarraibideak eta irakasleen **lanaldi murrizketak** eskatzeko prozedura onesten dituen, 2013-2014 ikasturterako.

1. Behin-behineko destinoak, praktikaldikoak eta zerbitzu eskakizunetakoak esleitzeko jarraibideak.

Jendaurreko ekitaldi batean esleitzen diren behin –behineko destinoak praktiketan eta zerbitzu eginkizunetan hautatzeko, honako hurrenkera honi jarraituko zaio:

- Funtzionarioen osasun-arrazoien ondoriozko zerbitzu-eginkizunak.
- Irakastordu nahikoa ez izateagatik ikastetxez aldarazitako irakasleen zerbitzu-eginkizunak.
- Euskaraz irakasteko konpromisoa betetzeko ikastetxez aldarazitako irakasleen zerbitzu-eginkizunak.
- Behin-behineko destinoa duten funtzionarioak.
- Irakasleei adingabeko seme-alaba zaintzeagatik eta salbuespenezko inguruabarrengatik emandako zerbitzu-eginkizunak.
- Praktiketako funtzionarioak.
- Irakaskuntzako lanpostuetan prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izangaiak.

Zerbitzu-eginkizunen arrazoia:

- **Antolamendu arrazoientatik**, Hezkuntza Departamentuak proposaturik.
- Zerbitzu-eginkizuna **interesdunek eskatzen dutenean**.

Antolamendu arrazoiengatik emandako zerbitzu-eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuan irakaskuntzako **aholkulari lanetan aritzeagatik.**
- **Ikastetxe bateko programa jakin batean irakasle gisa parte hartzeagatik.**

2013ko martxoaren 27a baino lehen, zerbitzu-eginkizunak zein programatarako eskatu diren, haietako arduradunek proposatutako zerbitzu-eginkizunen zerrenda bakarra bidali beharko diote Giza Baliabideen Zerbitzuari, zerbitzu-eginkizun horiek hartuko dituzten interesdunen adostasuna erantsiz.

Interesdunek eskatutako zerbitzu-eginkizunak:

- **Toki-korporazio bateko kide** izateagatik.
- Eskatzaile funtzionarioaren **osasun arrazoiengatik.**
- **Seme-alaba adingabea zaintzeagatik.**
- **Salbuespeneko inguruabarrengatik.**

Ikastetxe jakin bati zerbitzu-eginkizunak kasu hauetan emango zaizkio: hautetsi karguaren ondoriozko zerbitzu-eginkizunetan, osasun-arrazoien ondoriozkoetan eta salbuespeneko inguruabarren ondoriozkoetan.

Eman diren gainerako zerbitzu-eginkizunetan, funtzionarioek horretarako eginen den jendaurreko ekitaldi batean hautatuko dute destinoa.

Epeak:

Eskabideak ebazpen honen **I. eranskinean** argitaratzen den ereduaren arabera izanen dira eta **hamar egun baliioduneko epean aurkeztu beharko dira, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita**, ondoko toki hauetakoren batean: Hezkuntza Departamentuko Erregistroan edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetan.

Halaber, eta **seme-alaba zaintzeagatik** ematen diren zerbitzu-eginkizunetan soilik, **behin-betiko destinoa eskuratzen duten funtzionarioek** eta **aurreko atalean ezarritako epea bukatu ondoren jaio den seme-alaba dutenek hiru egun baliioduneko epean aurkeztu ahaliko dute eskabidea.**

Irakastordu nahikoa ez izateagatik, euskaraz irakasteko konpromisoa edo toki-korporazio bateko kide izateagatik ikastetxez aldatu eta egoera horretan segitzen badute, leku aldaketa eskatu nahi izanez gero, **2013ko martxoaren 30a** baino lehen jakinarazi beharko da idatziz.

Eskatutako zerbitzu-eginkizunei uko egitea:

Interesdunek uko egiten ahalko diote zerbitzu-eginkizunen eskaerari, soilik epe hauen barruan:

- Eskabideak aurkezteko epean.
- **Hiru egun balioduneko** epean, Ebaluazio Batzordeak proposatutako zerbitzu-eginkizunen **behin-behineko zerrenda argitaratu** eta biharamunetik hasita.
- Seme-alaba adingabea zaintzeagatik eskatutako zerbitzu-eginkizunetan, **hiru egun balioduneko** epean, **lekualdatze lehiaketaren deialdiaren behin betiko esleipena** onesten duen ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Seme-alaba zaintzeagatik emandako zerbitzu-eginkizunetan eta salbuespeneko inguruabarren ondoriozkoetan, **eskatzailearen lanpostua betetzea lanpostuak aukeratzeko ekitaldian destinoa benetan aukeratzearen baldintzapean egonen da.**

2. Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-karguen izendapena.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ikastetxeetako zuzendaritza-karguetarako salbuespenez proposatutako langileen zerrenda Giza Baliabideen Zerbitzuari igorriko dio, **2013ko maiatzaren 1a** baino lehen.

Zuzendaritza-taldean izendapena ikastetxeko zuzendaria izendatzen den epe bererako eginen da.

3. Lanaldiaren murrizketak eskatzeko.

Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle ez-unibertsitarioek lanaldiaren **heren bat edo erdia murrizteko eskaera egiten ahalko** dute, apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuan azaltzen diren kasuetako batean eta baldintzetan badaude.

Epeak:

Egitura organikoaren eta eginkizunen ondorioetarako Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mende dauden **irakasle funtzionario** ez-unibertsitarioen, lan-kontratudun finkoen eta lan-kontratu mugagabea dutenen kasuan, 2013-2014 ikasturterako lanaldiaren **murrizketa edo lanaldiaren murrizketa baten luzapena eskatu nahi dutenek Giza Baliabideen Zerbitzuari jakinarazi beharko diote, 2013ko apirilaren 15a baino lehen.**

Egun horren ondotik beste destino bat lortu dutenek **lanaldiaren murrizketa edo lanaldiaren murrizketa baten luzapena eskatzen ahalko dute hiru egun balioduneko** epean, Argibide eta Agiri Bulegoan eta Hezkuntza Departamentuaren web orrian lekualdatze lehiaketa behin betiko ebartziko duen ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe berean uko egiten ahalko zaio 2012ko apirilaren 16a baino lehen aurkeztutako eskaerari.

Halaber, **jendaurreko ekitaldi batean destinoa lortzen duten langileek lanaldiaren murrizketa edo lanaldiaren murrizketa baten luzapena eskatzen ahalko dute hiru egun balioduneko epean, 2012-**

2013 ikasterterako destinoak esleitzeko jendaurreko ekitaldia egin eta biharamunetik hasita. Epe berean uko egiten ahalko zaio 2012ko apirilaren 16a baino lehen aurkeztutako eskaerari.

Iraupena:

Epe horietako batean eskatzen diren lanaldiaren murrizketak **2013ko irailaren 1etik 2014ko abuztuaren 31ra** bitarterako emanen dira, salbu eta murrizketarako arrazoia epe laburragoan bukatzen den.

Ebazpen honetan **ezarritako epeaz kanpo eskatzen diren lanaldiaren murrizketak** ez dira baliatzen hasiko harik eta lanaldiaren murrizketaren baimena jakinarazten den eguna arte, zeina **arauz ezarritako epean jakinaraziko baitzaie.**



AFAPNA
sindikatua